



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Kooperatibismoaren hariak
belaunaldi berrietan**

Jokin Bergara Eguren

49-55 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.06>



Kooperatibismoaren hariak belaunaldi berrietan

Bergara Eguren, J.

Kooperatibismoa, Lanaren Soziologia, Subjektibotasun Garaikidea, Ekonomia Sozial eta Ekologikoa, Trantsizio Ekosoziala
jbergara@mondragon.edu

Laburpena

Testuinguru soziolaboral ziurgabe eta aldakorrean Arrasateko Kooperatiba Esperientziak oraindik ere ekoizpen eta enpresa antolaketa eredu alternatibo izaten jarraitzen du. Ordea, modernitatearen alaba zuzena izanik, kooperatibagintza eraiki eta bultzatu zuten belaunaldien eta orain lanera sartzen ari direnen artean ezberdintasun soziologiko nabarmenak daude, mundu ikuskera, identitate eraikuntza eta esanahi sozialen aldetik. Ikerketa honetan kooperatibismoaren transmisioa zein modutan gauzatzen den ikertu dugu, gazte belaunaldietan nagusitzen diren definizio sozialak identifikatuz eta kooperatibismoak epe ertainean iraungo badu, transmisioaren aldetik dituen erronka estrategikoak seinalatuz.

Hitz gakoak: Kooperatibismoa, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, Identitate Kooperatiboa, Lanaren Soziologia, Gazteak.

Abstract

In a precarious socio-labor reality, The Mondragon Cooperative Experience remains as an organizational and mode of production alternative. However, there are so many sociological differences between the first generation of cooperative members and the young generations coming to work. Cultural values, identification processes and social meanings of the Cooperative Model are changing. In this research, we investigate the way of cooperativism transmission is happening in young generations, pointing out the social definitions of cooperativism and its strategic challenges.

Keywords: Cooperativism, Mondragon Cooperative Experience, Cooperative Identity, Sociology of Labour, Young Generations.

1. Sarrera eta motibazioa (Formatu orokorra eta bibliografia)

Askotarikoak dira kooperatibismoak mende hasiera honetan bizirauteko, aurre egin beharreko erronka estrategikoak. Aldaketa klimatikoa, biztanleriaren zahartzea, gobernu eredu neoliberalaren indartzea, lan munduaren eraldaketa digitala... Ekonomiaren edo enpresagintzaren alorretik ikerketa ugari egin dira kooperatibismoak aurre egin beharko dien erronka sozioekonomikoen gainean, talentuaren erakarmena edota nazioartekotze eraginkorra izanik proposatzen dituzten gakoetako batzuk. Ordea, interes soziologiko berezia hartzen duen beste alor batzuetan ez da horrenbeste ikertu. Horien artean gazte belaunaldi berriak eredu kooperatiboarekin ezartzen duen harremana dago, testuinguru soziolaboral ziurgabe eta prekarizatu batean. Arrasaten errotutako Kooperatiba Esperientziak behar du gai hori jorratu, proiektu kooperatiboaren biziraupenerako eta egungo egoeraren diagnostikorako eremu estrategikoa baita. Ikerketa honek kooperatibetara lanera sartu diren gazte belaunaldiek eredu kooperatiboa ulertzeko dituzten esanahi sozialetan arakatu nahi du, dauden diskurtso korrante desberdinak identifikatu eta analisira ekartzen.

2008ko krisialdiak eraginda lurzoru ekonomiko hauskorra geratu zen bezela, Covid19aren pandemiak oraindik eta agertoki sozioekonomiko kaltetuagoa laga du. Gazte belaunaldien langabezia tasa gora doa, %28,6 EAEn 2020ko hirugarren hiruhilekoan, (Eustat, 2020) eta ezberdintasun sozial eta ekonomikoak areagotzeko baldintzak egonkortzen ari dira. Kooperatibagintza, ezberdintasun sozioekonomikoak arintzeko bide bezala erreferentzia interesgarria izan daiteke lan munduan murgiltzen ari den belaunaldiarentzat, bai krisialdi ekonomikoari aterabide demokratiko bat emateko, bai eta datozen bestelako erronka erraldoien (batez ere trantsizio energetikoa eta berotze globala) aurrean jarduteko modu eraginkor eta

berdinzale bat eskura edukitzeko. Nola ulertzen dute, ordea, kooperatibagintza? Zein atxikimendu maila erakusten dute proiektu kooperatiboarekiko? Zein dira etorkizunera begira dituzten espektatibak?

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak (Azpialak eta zerrendak)

Lanaren soziologiatik aro fordistatik ekoizpen eredu post-fordistarako jauzia aztertzean aldaketa esanguratsu ugari berri eman izan da (Gorz, 1995). Lanaren eraldaketak bere alderdi fisikoa ez ezik bere alderdi kulturala ere eraldatzen duela aztertu da; alde batetik, gaitasun kognitibo eta inmaterialak balio gehiago dute gaurko lan-harremanen konfigurazioan, lantegi industrialetako zeregin errepikakorren kaltetan. Jarduera industrialean ekoizpen-katearen banaketa globalak eta digitalizazio prozesuak bete-betean eragin dute, eta horrekin batera azken hamarkadetan berregituratze okupazionala emango da; bereziki industriako enpleguaren galera gradualak eta sektore tertziarioak (administrazio publikoa, osasuna, hezkuntza, zerbitzu aurreratuak) garrantzia hartu ahala. Era berean, ekonomia lehiakorretako okupazioen egitura praktika ekonomiko berriak ageri dira (diseinua, ikerketa, teknologia, komertzializazioa, merkaturatzea, arreta, zerbitzua). Enpresetan eta gobernuen aurrekontuetan ezagutzari loturiko aktibitateek (i.e., giza baliabideen kontratazio irizpideak, inbertsio orokorra, produkzioko ekarpena, egitura okupazionala) ze pisu duten ikusita, berresten da azken hamarkadetan ekonomiaren sektore-egitura aldatzen ari dela.

Bestetik, Mendebaldeko gizarteetan geroz eta pisu gutxiago daukate lanpostuen kopuru globalean lanpostu seguru, iraunkor eta ibilbide luzekoek; bizitza-osoko lana eta ibilbide profesionala enpresa berean garatzea joera gero eta ahulagoa da; biztanleria okupatua eta bereziki emakumeen, gazteenen, kualifikazio baxukoak eta etorkinen kasuan laneko txandakatzea eta ezegonkortasuna ezaugarri gero eta arruntagoa da. Alde horretatik, lan munduan sartzean gazte belaunaldiak bizi duen ondoreza prozesu horrekin identifikatzen da. Garai fordistaren bukaerak lan banaketaren birkonfigurazioa ekarri zuenetik (Castel, 1997), gazteei zailagoa zaie adin goiztiarretan lanpostu iraunkor eta ongi ordaindu batera iristea, eta desoreka nabarmenak sortu ditu gazte belaunaldien prestakuntza mailaren eta eskuragarri dituzten lanpostuen artean.

Lan modernoak bere alor fisiko-materialean aldatu izanak bestelako prozesu batzuk ere abiarazi ditu jardun sozioekonomiko garaikidean. Horietako bat enpresaren izaerari, antolakerari eta garapenari dago lotua. Sennetek (2006), gaur egungo enpresa-antolera malgu eta berriei hiru ahulezia ikusi dizkie. Alde batetik, pertsonak enpresan egonkortasuna lortu ezean, nekez garatu ohi dira leialtasun instituzionala, kooperazioa eta erantzukizuna ere; ezegonkortasunak eta laneko estresak, gainera, langileen artean osasuneko eta buruzko gaixotasuna aise eragiten ditu. Bigarrenik, lan-egonkortasunak konfiantzarekin zerikusi zuzena du, eta bereziki konfiantza informalekin; alegia, pertsonen arteko jokabide, balio eta egiteko modu tazituki ikasiekin, baina lan-harreman berriek hori garatzea zaildu egiten dute. Hirugarrenik, enpresaren funtzionamenduan eta gaitasun profesionalen aprobetxamenduan pertsonak erakundeaz duen ezagutza ere garrantzitsua da, krisi uneetan bereziki, baina ezagutza instituzionala ahula da lan-ezegonkorra nagusitzen den kasuetan.

Enpresaren gaineko kapital soziala (leialtasuna, konfiantza informala, ezagutza instituzionala) ahultzen den bezala, lan harreman malguk gizarte bizitzako beste hainbat alorretan ere eragina dute. Alde horretatik, bizi ibilbideak lineala izateari utzi dio, lanak hartu dituen forma berrien ondorioz batez ere; gaur konfiguratu ari den lan modu nagusiak ez du marko egonkor aurreikusgarri irudikatzea ahalbidetzen, geroz eta konplexuagoa da harreman sare solido eta epe luzerakoa eratzea lanaren esparruan. Kasu horietan, gainera, ebidentzia soziologikoek egiaztatzen dute lan-harreman berriek pertsonaren izaeran, bizi-espektatibetan, harreman sozialetan edota balio-sisteman eragiten dutela. Horrez gainera, lanean eraginkor

bilakatzeko moduak langilearen dimentsio psikologiko-emozionalak piztearekin dute zerikusia (Illouz, 2019), ekoizpen eredu post-fordistan langileak bere zerbitzua ematerakoan *entusiasmoa* edo *pasioa* jartzea bilatzen da (Zafra, 2017) eta horrek gazte belaunaldien lanerako sarbidea baldintzatzen du.

Hala, gazteengan zentratutako analisisetan ezinbestekoa da gizarte prozesu horien berri ematea lehenbizi. Lan-mundurako jauzia, etxebizitzarako sarbidea edo seme-alabak izateko adina atzeratu da geure gizarteetan, batez ere lanaren arloan eta hedaduraz baldintza materialetan, bizi espektatibetan eta balio-sistemetan gertatu diren aldaketengatik. Bada, gazteei buruz ari garelarik kontuan hartu behar dugu gazte izatetik heldu izaterako jauzi horretan dauden pertsonen ari garela. Trantsizio luzatu batean daude nolabait, edo trantsizio gorabeheratsu eta bihurtzaile jositako batean, eta epe horretan aurreko belaunaldiak baino denbora gehiago emateak eraldaketa kultural batzuk hauspotzen ditu, lana ulertzeko moduan, lan eremuarekin ezartzen den harremanean eta oro har bizi-estiloan bertan. Ikerketa ugari dira gazte belaunaldiek etorkizunari begiratzean ziurgabetasuna, mesfidantza eta kezka agertzen dituztela diotenak (Alonso et al, 2017) . Euren gurasoen belaunaldiak ez bezala, trantsizio luzatu baten bizi beharrak ibilbide normatiboki arautua gauzatu ahal izateko zailtasunak dakartza, eta 2008ko krisialdiak hauspotutako muga solidoen lausotzeak, gazteen bizi-espektatibak aldatzea ere ekarri du.

Arrasateko Kooperatibak trama soziolaboral horren guztiaren parte izaki, ez daude lan prozesu garaikideetatik salbu (Azkarraga Etxagibel, 2006). Egin diren zenbait ikerketek (Ikerfel, 2016) kooperatibek sustatu gura dituzten balioen eta gazteek lanpostu bati eskatzen dizkieten ezaugarrien artean korrelazioa dagoela adierazi dute. Ordea, teknika kuantitatiboetatik haratago, ikerketa kualitatiboak eskaintzen digun sakontasuna beharrezko zaigu prozesu sozial eta historiko zabalagoen baitan kokatzeko gaurko gazte belaunaldien eta eredu kooperatiboaren arteko harremana. Hor ezartzen diren loturen, esanahien eta definizio sozialen mapa kartografiatzeko ariketa egitea da planteatzen duguna, kooperatibismoaren etorkizuna eraikitzekeo zimenduei buruz ari baikara.

2.1. Helburuak

- Gazte belaunaldiek enpleguaren gainean dituzten espektatiba, jarrera eta balioak zein diren argitzea.
- Kooperatibismoaren gainean eraikitzen dituzten narratiba, iruditeria eta esanahi sozialak aztertzea.
- Arrasateko Kooperatiba Esperientziarekin eta eredu kooperatiboarekin ezartzen duten harremana ikertzea, kooperatibagintzara hurbiltzea eragin dieten faktoreak aletzearekin batera.

3. Ikerketaren muina

Burutu ditugun elkarrizketetan, bi posiziotan oinarritutako sailkapena egin dugu. Alde batetik, kooperatibetan ardura posturen bat duten perfilak, Mondragoneko kooperatibetako eguneroko errealitatea gertutik ezagutzen dutenak. Bestetik, azken urteetan kooperatibetara lanera sartu diren gazteak. Gure aukeraketa ez da arrazoi estatistiko bati jarraituz burutu (ahalik eta elkarrizketa gehien egitea) arrazoi estrukturaleri jarraituz baizik (kokapen esanguratsuak dituztenak elkarrizketatuz). Horretarako, giza baliabideen alorrean ardura postuak dituztenei egin dizkiegu sakoneko elkarrizketak, uste izanez bertatik lortu dezakegun informazioa baliotsua eta aberatsa dela. Helburua, pertsona horien kokapen estrategikoa kontuan hartuta,

ahalik eta kalitate handieneko informazioa lortzea izan da; kokapen zehatz batetik egiten dituzten formulazioak eta diskurtsoak direla jakinik, noski. Gazteen inguruan dauden pertzepzio nagusiak eta diskurtso korranteak zein diren identifikatzeko balioko digu, eta kooperatibekin zein lotura duten zehazteko.

Bestetik gazteekin beraiekin hitz egin dugu, lanean garatzen ari diren subjektibotasuna sakonago ezagutu ahal izateko eta kooperatibarekin duten harremana euren ikuspuntutik zehazteko. Gure helburua eredu kooperatiboarekin ezartzen duten harremana zein den deskribatzea izan da, eta elkarrizketetan kooperatibismoari, lanari eta etorkizuneko proiektioari begira dituzten iritziak ezagutu nahi izan ditugu.

Parte-hartzaileak hautatzerako orduan, gaitasun teknologikoko kooperatibetan lan egiten zuten langileak lehenetsi ditugu. Lanaren eraldaketaren inguruan aurreikusten den prozesu sakonetako bat digitalizazioa izanik, balio-erantsi teknologiko altua duten kooperatibetan prozesu honen argi-ilunak modu zehatzagoan ikertu genitzakeela uste izanda aukeratu ditugu. Orotara 13 elkarrizketa egin dira 2020ko apiriletik uztaileko epean burutu direnak.

1. taula. Elkarrizketen diseinu teknikoa

| Kodigoa | Zuzena / Zeharkakoa | Franja | Gizona / Emakumea | Adina | Kooperatiba | Bazkidea |
|---------|---------------------|--------|-------------------|--------------|------------------|----------|
| E01 | Zuzena | A | Gizona | 35tik gora | MCC | Bai |
| E02 | Zuzena | A | Emakumea | 35tik gora | Copreci | Bai |
| E03 | Zuzena | A | Gizona | 35tik gora | Danobat | Bai |
| E04 | Zuzena | A | Emakumea | 35tik gora | Fagor Automation | Bai |
| E05 | Zuzena | A | Emakumea | 35tik behera | Orbea | Bai |
| E06 | Zuzena | A | Emakumea | 35tik gora | Ulma Forge | Bai |
| E07 | Zuzena | A | Emakumea | 35tik gora | Cikautxo | Bai |
| E08 | Zuzena | B | Gizona | 35tik behera | Ulma | Ez |
| E09 | Zuzena | B | Emakumea | 35tik behera | Arrasate | Ez |
| E10 | Zuzena | B | Gizona | 35tik behera | Arrasate | Bai |
| E11 | Zuzena | B | Gizona | 35tik behera | Ederlan | Ez |
| E12 | Zuzena | B | Emakumea | 35tik behera | Assembly | Ez |
| E13 | Zuzena | B | Gizona | 35tik behera | Elektronika | Ez |

Elkarrizketak aztertu ostean, lau azpiatal nagusi bereizi ditugu, xehetasunean ikertzen saiatu garenak, narratiba, esanahi-trama eta identitate jakin horiek egotea ahalbidetzen duten faktoreak azaleratu nahian: i) Lanpostu egokiaren definizioa: segurtasunetik autonomiara ii) eredu kooperatiboarekin harremana iii) Kooperatibismoarekin konexioak eta eten-uneak iv) etorkizuna irudikatuz, lanpostuaren eta kooperatibaren proiektzioaren gaineko narratibak.

Lau azpiatal horiek dira aurkezpenean aurkeztuko direnak, elkarrizketen aipuekin eta marko teoriko zabalagoarekin harremanean. Dokumentu honetan, luzera arrazoiengatik azpiatal bakoitzaren analisiaren ezaugarrietan sartzea baztertu dut.

4. Ondorioak

Ikerketa honi amaiera puntua emate aldera, azken ondorio batzuk zerrendatu eta etorkizunera begira garatzeko leudekeen ikerketa-ildoak zein diren zehaztu nahi dugu.

- Gazte talentua erakartzeari buruzko diskurtsoek oinarri sendorik ez dutela frogatua geratu da. Kooperatibetako lanpostu gehienak betetzeko arazo materialik ez dago gaur egungo baldintzetan, langile gehienak ingurukoak dira eta perfil oso zehatzetan eta kasu puntualen batean ez bada, oro har kooperatiben beharrak asetzeko oinarri soziala gertuko eremu geografikoetako da. Horrek Alonso eta Fernandez Rodriguez-en ildotik, ondorioztatzen garamatza talentuaren auzia disputan dagonifikantea dela narratiba enpresarial jakinetan aurkitu dezakeguna baina arazo estruktural bezala erro soziologiko ahulak dituena.
- Lanaren antolaketa post-fordistan egonagatik, Arrasateko Kooperatibetan lan egiten duten gazteek garrantzia esanguratsua aitortzen diote lanari berari. Balio post-materialen zantzuak ikusi baditugu ere, gehiengoaren kezka nagusiak lotuta jarraitzen du lanaren kultura klasikoaren baitan kokatu ditzakegun eskakizunekin. Alabaina, lanean kudeatzeko espazio gehiago eskatzen dute, norbanakoari askatasun gehiago emanda produktiboago izango direlakoan eta lanari loturiko arlo psikosozialak hobetuko direlakoan.
- Arrasateko Kooperatibak eskaintzen dituzten lanpostuak oso ezberdinak izanik, ezberdintasunak daude gazteek kooperatibari egiten dioten eskakizunetan, lan jardura zehatzari loturik. Produkzioan lan egiten dutenek, oro har, gehiago begiratzen diote lanaren alderdi materialari (ordutegiak, baldintzak, garbitasuna, pisua, lanean ukitu behar dituzten materialak etab.); aldiz, bulegoko lanean dabiltzanek eta proiektuak lan egiteko aukera dutenek harremanei, laneko komunikazioari, eta proiektuari atera diezaioketen probetxuari begiratzen diote. Bakoitzaren kokapen soziolaboralak modu adierazgarrian baldintzatu du batzuen eta besteen definizioa lanpostu on edo egoki baten inguruan. Bi talde horien baitan ere eskakizun ezberdinak daude, kooperatibak lan egiten duen sektore zehatzari lotuagoak daudenak.
- Eredu kooperatiboarekiko lotura falta nabarmena. Euren belaunaldiari ez dagokion esperientzia bat izanik, kooperatibismoarekiko interesa egon badagoen arren identifikazio ahulak topatu ditugu gazteen aldetik. Eredu kooperatiboa beste ohiko ereduarekiko kontrajartzeko ere zailtasunak izan dituzte elkarrizketatu batzuek, eta gehiago begiratzen diote haiei dagokien zeregin zehatzari, proiektu kolektibo zabalago batean parte-hartzeari baino.

- Lanaren eta eraldaketaren esparruen bereizketa. Haustura puntu bat identifikatu dugu lan jardueraren eta auzi sozialean konprometituak izan daitezkeen bestelako jardueren artean. Arrasateko Kooperatibetan lanean dabiltzan gazteek ez dute euren eguneroko jarduna ekimen eraldatzailetzat jotzen, bilatzekotan, eremu horiek hortik kanpo bilatzen dituzte. Lanak zeukan zentzu eraldatzaile-bokazionala lurrundu da, kooperatibismoarekiko identifikazio faltak bultzaturik edo proiektu kooperatiboa era integralean ez ulertzetik datorrena. Ordea, elkarrizketatu ditugun gazteengan bai dago zerbait berezian parte-hartzen ari direneko pertzepzioa.
- Egonkortasun autonomo baten nahia. Gazteek etorkizunean nahiko luketen lanpostua eta nahiko luketen kooperatibismoak euren gurasoen belaunaldiari zegozkion ezaugarri batzuk berreskuratzetik dator. Lan faltarik ez izatea, iraunkortasuna eta gora-behera handirik gabe euren gaitasun profesionalak hobetzeko aukera izatea litzateke agertokirik desiragarriena beraientzat. Norbanakoari lanean, familian edo lagunartean duen papera erabakitzekeo tartea zabaldu zaio, eta euren buruarekiko ardura hartu gura dute, betiere lan hierarkiak, arauak eta eskakizunak modu ez-autoritarioan aplikatuz gero.

Ikerketa honen izaera irekia azpimarratu nahi dugu, jakinik ikerlariaren kokapena ere bere posizio sozialagatik, ibilbide formatiboagatik eta testuinguru soziokulturalagatik baldintzatua dagoela. Beraz, ikerketa honetan ateratako ondorioak bukatugabeak dira, eztabaidara irekiak eta errealitate sozialaren izaera aldakorra onartuz, moldagarriak.

Ikerlan honetan aztertu duguna kontuan hartuta, ondorioztatu dezakegu kooperatibek erronka handiagoa dutela kooperatibismoaren eta bere balioen transmisio eraginkorrean, gazteen erakarmenean baino. Lan-merkatu geroz eta oldarkorragoaren testuinguruan, inertzia materialagatik bada ere, kooperatibek ez dute gazteen eskulanik falta izango ondorengo urteetan. Ordea, kooperatibara biltzen diren gazteek euren jardunari ematen dioten zentzua eraldatzean dago zeregina, aurrez aipatzen genuen lanaren zentzu bokazional-eraldatzailerara itzulita.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Zeregin hori arrakastaz burutu ahal izateko identitateen soziologian arakatu beharko genuke, talde sentipena zein modutan eraikitzen den ikusi ahal izateko. Labur esateko, ez dago identitate bakar eta bukatuak, identifikazio prozesuak daude. Joko horretan aldagai ezberdinak sartzen dira jokoan, identifikazio estetikoak, etikoak, erotikoa... adar guzti horiek hartu behar dira kontuan, proiektu berriak, erakargarriak eta birliluratzailerak bat transmititu gura bada. Dena den, uste dugu kooperatibismoa gizarte mugimendu bezala ulertuta, bere hanka ekonomikoa ez ezik hanka kulturala eta politikoa ere indartu behar duela, ohiko enpresekiko bereizgarri oso nabarmenak dituela garbi geratzeko.

Azkenik, gazteen eta kooperatibismoaren arteko harremanera egindako ekarpen hau eredu kooperatiboak gaur gaurkoz eskaintzen dituen potentzialtasunak azpimarratuz bukatu nahi genuke. Eremu kooperatiboa erantzukidetasunean oinarritzen den eremua da, bazkideen, kudeaketa batzorde ezberdinen eta kooperatibara batzen diren langile berrien artean. Uste dugu kooperatibismoaren ezaugarri izan den ehuntze komunitario estua zaindu eta sustatuz gero, lotura sozial sendoak sortzeko aukera handiak daudela gazte belaunaldiengan. Modu honetan, aipatu ditugun kooperatibismoarekiko lotura faltari aurre egiteko moduak daudela iruditzen zaigu, kooperatibak dituen erronkak eta arazoak (ekonomikoak bezainbat, sozialak eta politikoak) zentzu partekatuan interpretatuko liratekeelako, eta ez soilik kooperatibetan urte gehien doazen edo zuzendaritza batzordeetan dauden arazoak. Gazte belaunaldietan, gainera, faktore hau estrategikoa da, ehuntze komunitario sendoak gertutasuna, parte sentitzean eta

identifikazioan laguntzen baitu. Laburbilduz, kooperatibek garatu ditzaketen estrategien zutabeetako bat murgiltze ereduak diseinatu eta aplikatzea da, etengabe eraberritzen den kolektiboan nukleo komunitarioa gogor mantenduz baina era berean nukleo horretara iritsi ahal izateko bideak eskainiz etorri berriei. Etorkizuneko iker ildoak beraz ehuntze komunitario horretan sakontzen duten estrategien bilakuntza eskatzen du, kooperatibismoa belaunaldiz transmititu gura bada era arrakastatsuan.

6. Erreferentziak

- Alonso, L.E, Fernández Rodríguez, C. J. eta Ibáñez Rojo, R. (2017). Juventud y percepciones de la crisis: precarización laboral, clases medias y nueva política. *EMPIRIA. Revista de Metodología de Ciencias Sociales*. 37, 155-178.
- Azkarraga Etxagibel, J (2006) *Nor bere Patroi. Arrasateko Kooperatibistak aro globalaren aurrean*. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Castel (1997): *La Metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del Salariado*. Paidós. Buenos Aires.
- Gorz, A (1995) *Metamorfosis del Trabajo: Búsqueda del Sentido. Crítica de la Razón Económica*. Sistema, Madril.
- Illouz, E (ed.) (2019) *Capitalismo, consumo y autenticidad: las emociones como mercancía*. Katz, Madril.
- Ikerfel (2016): Análisis de percepción de la marca Mondragón y sus cooperativas entre jóvenes titulados y graduados. Mondragon Cooperative Corporation.
- Sennet, R. (2006). *La corrosión del carácter. Las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*. Anagrama. Bartzelona
- Zafra, R (2017) *El Entusiasmo. Precariedad y trabajo creativo en la era digital*. Anagrama. Bartzelona.

7. Eskerrak eta oharrak

- Lan hau burutzeko Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekonomia Saileko diru-laguntza baten sostengua izan dugu Lanki Kooperatibismoaren ikertegian.
- Era berean, lan hau nire tesiaren adar bat da. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia aztertzen ari naiz begirada sozio-ekologikotik, trantsizio ekosozial sistemikoari begira euskal esperientzia autogestionario esanguratsuenetik jaso ditzakegun ikasgaiak eta egon daitezkeen arriskuak aletzeko. Zentzu horretan, beharrezkoa zait kooperatibismoan konfiguratu den patroi subjektibo-psikokulturala aztertzea eta kooperatibismoa, autoeraketa zein erantzukidetasuna ulertzeko dauden moduen berri ematea.